



Juan Calpasoro Jauna, Euskadiko Fiskal Burua, idatzi honen bidez, Ertzaintzako erakunde sindikal nagusiok, ErNE eta ELAk, jakinarazi nahi dizugu gaur egun Ertzaintzako ikerketa arloaren egoera zein den. Izan ere, Arlo hau funtsezkoa da zuk zuzentzen duzun fiskaltzarentzat.

Segurtasun Sailak, 2014ko abenduan, Ertzaintzako Zuzendaria buru zela, Gervasio Gabirondo Jauna, ikerketa arloa aldatu zuen <<Ertzaintza 2016 Ortzimuga>> plana burutzerakoan. Plan horrek jasotzen dituen aldaketak, Ertzaintzako erakunde sindikal guztiek beti kritikatu izan dugu. Lehenengo aldiz erakutsi zigutenean ohartu ginen egiten dugun lan kalitatean kalterik eragin gabe oso zaila izango zela ezartzea. Izan ere, 30 urte baino gehiagoko lan-ibilbidea dugunez ikusten genuen planak berarekin zeramala ia gaindi ezinak izango ziren azpiegiturazko disfuntzioak.

Une horretatik bertatik, bai ErNe zein ELA, eginahaletan ari gara aldaketa horiek egungo egoerarekin bat datozenak izateko, eta arrazoizko konponbidea emateko moduak izateko. Are garrantzitsuago dena: zerbitzatzen dugun gizartearen onerakoak.

Administrazioaren erantzuna, hots, Segurtasun Sailarena eta Ertzaintzako Zuzendariarena berarena, agerikoa dena ukatzea izan da. Gainera, Ertzaintzako langileriaaren ordezkarioi iritzia eman eta gai honetan proposamenak egiteko zilegitasuna ukatu zaigu. Hau da, esan zaigu, aldaketa prozesu horretan ez dugula zer esanik.

Kontaezinahalako arazoak konpondu nahian gure aldetik aldiro-aldiro Segurtasun Sailaren ordezkariari eskatu diegu konponbidea; bai negoziazio mahaian, eta, baita, Ertzaintzako Kontseiluan ere. Gero, Legebiltzarreko Segurtasun-batzordearen bi agerralditan ere berdina eskatu genuen. Halaber, ezin konta ahala salaketa publiko egin ditugu. Eskatera guztiak, betiere, bai herritarrei, eta baita Justizia Administrazioari ere, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko asmoz eginak izan dira. Horrenbestez, behin eta berriz ukatuak izan direnez, idatzi hau bidaltzen dizugu.

Autoritatearen agente garen aldetik, eta soilik izaera horretatik, gure nahia da nabariak iruditzen zaizkigun puntu batzuen berri zuri ematea.



Izan ere, antolaketa honen oinarri nagusietako bat, Ikerketa Arloa alegia, larriki kaltetzen baitute.

Ertzaintzaren Zuzendariaren Agindu bidez, 2013ko abenduan, ikerketa arloaren berregituraketari ekin zitzaion. Guardiako ikerketa esleitzen zen kide kopuruagatik ezinezko egiten zuen gutxiengo berme batzuetan zerbitzua ematea. Pertsonal hau da lehenengo salaketa hartzeaz arduratzen dena, eta lehenengo izapidetzak egiten dituen; herritarrekin harremanetan dagoena, eta delitu gunearen zaintza egiten duena.

Ikerketa Arloko kopuru nagusia Kasuetako alorrari (hauek uniformerik gabeko ikerketakoak dira) esleitu zaizkio. Pertsonal honen ardura da ikertu behar diren esparruetan beharrezko lanak egitea. Begizko ikuskaritza eta inteligentziazko zereginak bezalaxe.

Lekualdatze-lehiaketaren ondoren ikerketako berezitasuna duten pertsonala, batez ere Gipuzkoako ertzain-etxeetan, gutxiengoan gelditu da. Esate baterako:

Hernani: lanpostuen %50 prestakuntza berezirik gabeko pertsonalak betetzen du

Urola-kosta: lanpostuen %50 baino gehiago prestakuntza berezirik gabeko pertsonalak betetzen du.

Ondarroa: lanpostuen %85 prestakuntza berezirik gabeko pertsonalak betetzen du.

Hori esanda, pertsonal gabeziaren arazoa laburbilduta azalduko dugu, eta horren ondorioak:

PRESTAKUNTZA: lege aldaketak direla-eta, agentearen beraren gain uzten da prestakuntza. Agenteek egiten duten auto-ikasketa da, edo egoerarik onenean lankide batek besteari egiten dion informazio-helaraztea da, ez irakastea, honi ezin zaio pedagogiarik eskatu-eta. Hala ere, AGINTE mailakoei bai eman zaizkie legearen Eguneratzeko Jardunaldiak, PLEA antolatuta. Oro har erabateko ezjakintasuna dago prozedura berriei buruz, epaitegien funtzionamenduei buruz, etab...



Ematen den prestakuntza kaskarrak auzitegietara eramaten diren diligentzien kalitatean eragina du, gainera, horrek ekar lezake Ertzaintza berak irekitako ikerketa esparruen atzeratzea ere, edo behar bezalako jarraipena egin ezin izatea, horrek dakarren larritasun guztiarekin.

DELITU-TEKNIKA BERRIEN KONTRAKO ERAGINKORTASUNA: sekulako delitu informatikoen igoeraren aurrean gaude, baita, lapurreta eta kreditu-txartelen bikoizketena ere (%30-%40 ondasunen kontrako delituak dira), hortaz, beharrezkoa da auzi-ofizio asko egitea, eta hau, berriz, pertsonalik eta denborarik gabe egiten bada ikerketa ikaragarri moteltzen da.

BEGIZKO IKUSKAPENAK: begizko ikuskatze-taldea, garbi-garbi urritu da. Horrenbestez, delitua jasan duen herritarrari itxaronaldi luzeetara behartzen zaio. Ezin konta ahalako pilaketak eragiten dira pertsonal falta honegatik (egoera hau idatziz jakinarazi genien).

PERTSONALA: egiturazko mugikortasun geografikoa ezarri da, hau da, nor beraren unitatea ez den batean lan egiten da. Baita, mugikortasun funtzionala ere, hau da, kasuetako eta guardiako zereginak pertsonal berak bi zereginak txandakatuz egitea ohikoa bihurtu da. Horrela, berriz, ikerketaren jarraipena egitea ezinezkoa da. Lanpostuetarako lekualdatze-lehiaketan parte hartzen duten pertsonalaren multzo bat eta espezializaziorik eskatzen ez denean, zilegi da bere bizilekura hurbiltzeko interesa izatea, eta ez, aldiz, lanbide-garapenerako interesik. Hau dena gertatzen da Sailburutzak beharrezkoak diren prestakuntza ikastaroak antolatzerakoan huts egiten duelako. Gipuzkoan ikerketako pertsonalaren egoera adierazteko, Epailaritzako zerbitzuarekin parekotasuna egingo bagenu, beti dago guardian.

Gutxiengo agente kopuru bat beharrezkoa da kalitatezko zerbitzu bat emateko, eskubideak betetzeko gutxiengo bermea eman nahi badugu behintzat, pertsonalen faltak eragindako hutsuneak betetzeko ezingo da agentea erabili ertzain-etxe batetik bestera lekualdatzen.

BUROTIKA: kontrol-jarraibideak ikerketa moteldu eta oztopatzen dute. Energia asko xahutzen da honetan, eta, gainera, instrukzioko lan-taldea



estresatu egiten du. Instrukzioko lan-taldeak pertsonalaren administrazio zereginetarako erabiltzen dira.

GUTXI ASMATZEN DUGU: hainbeste langartu dugu inteligentzia zerbitzua, ez da gelditzen talde trinko eta homogeneorik. Izan ere, inolako prestakuntzarik gabe ETaren terrorismoaren aurkako borrokatik terrorismo yihadista eta nazioarteko erakunde delitugileak antzematera igaro dira. Hortaz, ILB eta IBNek landutako informazioa dutenean ere, ez daukagu pertsonalik ez ekintzarako, ez eta arazoa konpontzeko. Osasungintzarekin konparaketa bat eginez, esango genuke, diagnostiko onak eduki arren ez ditugu zirujaurik.

ORTZIMUGA 2016: argi eta garbi egin ezin litekeen asmo pilo baten sintesi bat da. Albo batera uzten ari da ikerketan oso trebatuak diren pertsona asko. Hauei erakundearekin lankidetzan jarduteko gogoak kendu diete, zeren eta, sentitzen dute ez direla aintzat hartuak izaten. Ahal den gutxien <<egitera>> pasatu da pertsonala, eta aginduak ez dira eztabaidatzen, ez eta antolaketa hobetzeko ekarpenik egiten ere. Planak jasotzen du lan-bilerak gehitzea, eta hori ere berez betebeharreko helburu izatera bihurtu da. Inolaz ere ez da egiten dugun lanaren hobekuntza-tresna eta agentea egituraren parte hartzaile egiteko.

Ertzaintzaren Zuzendaritzak agintaldi politiko honetan, planak agindutakora ikerketa arloa egokitzeke xedearekin zenbait jarraibide eta instrukzio argitaratu ditu. Galdera da: agintaldi politikoa sei hilabete barru bukatuko bada, eta, hortaz, Ortzimuga 2016 Plana, nola liteke aurreko guztiak indargabetuz, eta nabarmen aldatuz, Zuzendariaren Instrukzioa argitaratu behar izatea 2016ko otsailean? Baina, gainera, ezin izango da bete.

Oso adibide garrantzitsua honako hau da:

Ertzain-etxeetako ikerketako pertsonalak egin beharreko zeregin bat kasuen ikerketa da (uniformerik gabekoa). Zerbitzu horri, Instrukzioaren arabera, bigarren aldiz biktima ez bihurtzeko eta ikerketaren kalitatean hobetzeko; sexu-erasoak, etxebizitza-lapurreta eta biolentzia edo larderiako lapurreten biktimen kasuetan alor honetara esleitutako pertsonalak zuzenean artatuko ditu.



Bada, Donostiako Unitate batean, benetan gertatzen dena da egoera horiek guardiako pertsonalak artatu behar izatea. Sailak egin duen antolaketa negargarria delako gertatzen da hori. Izan ere, kasuetako lantaldeak desegin egin ditu.

Baina, gainera, egoerarik onenean, guardiako zerbitzuan 8 pertsona izanda ere, bat-batean, automatikoki eta Instrukture Buruari premiei buruz ezer kontsultatu gabe Lurralde Burutzatik, 5 kide gelditu bitartean, inguruko beste unitate batzuk indartzera eramango dira (Zarautz...)

Batez ere, goiz eta arratsaldeko lan-txandetan, zerbitzu hau ezindua dago salaketa ipintzera datorren herritarrari behar bezalako arreta ematerako garaian. Askotan behartzen zaie ordu bete bitarteko itxaronaldietara. Hau guztia saihestearren Sailak ipinitako neurriek badaki, ondo jakin ere, ez dutela funtzionatzen. Aurretiko hitzordua deserosoa da, eta, batzuetan salaketa ipini behar duenarentzat eragozpena, lana txanda batetik bestera pasatzea izateaz gain, bigarren honek egin ahal izango duen hala ez jakin gabe egiten da, gainera. Klean salaketak jasotzea kalkatzeko bat erabiliz agenteak bere borondatez egiten duen gain-interes berezi bat da. Izan ere, ezin zaio horrelakorik eskatu prestakuntzarik ez du jaso-eta. Nahigabe egindako akats batek arazoak besterik ez lioke eragingo.

Azkenik, herritarrak kexa ipintzeko eskubidea badu ere, debora gehiago ez galtzearren ez dira horren aldekoak.

Azaldutako guztiagatik, erakunde sindikal sinatzaileok uste dugu adierazitako egoera eutsi ezinezkoa dela, eta, horrenbestez, zure jakinen gainean ipintzen dugu. Izan ere, lege aldaketa berriaren arabera epailetzako ikerketen Buru zaren aldetik egoera hauek gerta ez daitezen zaindu behar duzu, eta Ertzaintzak normaltasunez, berme guztiekin eta kalitatezko zerbitzua emateko konponbideak bilatu beharra ere baduzu.